


Eskola- elkarbizitza

hobetzeko programak eta estrategiak



Aurkibidea

Aurkezpena	3	7. Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa	16
1. Eskola-elkarbizitza: programak eta estrategiak	4	8. Bitartekaritza Programa	18
2. Gatazken ebazpenerako curriculum programa	6	9. Ikasle laguntzailearen programa	20
3. Adimen emozionalaren programa	8	10. Kalitatezko zirkulua	22
4. Lankidetzak-jolasak	10	11. Elkarrizketa hezigarria	24
5. Dilema moralak	12	12. Kontratua	26
6. Diziiplina positiboa	14	13. Gela-batzarra	28

Aurkezpena

Guztioi dagokigu elkarrizketari irekiagoa, errespetutsuagoa eta baketsuagoa den gizartea eraikitzea, hau da, berau osatzen duten pertsona eta talde desberdinen artean elkarbizitza positiboa nagusituko den gizartea. Erakundeok ere, batez ere herritarrengandik hurbilenekoek, esate baterako Udalak, badugu ardura aldaketa hau bultzatzeko gure gizartean.

Elkarbizitza eta bakea ikasi eta eraiki egiten dira, eta guztiok gara proiektu honetako protagonista. Helburu honek prozesu motela eskatzen du, eta mentalitate indibidual eta kolektiboaren aldaketa; aldaketa honetan, hezkuntzak erabateko garrantzia hartzen du elkarbizitza baketsuaren ereduari eutsiko dioten balore, jarrera eta trebetasunen garapenean.

Nazio Batuak, bere 53/24 Ebazpenean, azpimarratzen du heziketa funtsezkoa dela bake kultura bultzatzeko bitarteko gisa eta, besteak beste, neurri hauek nabarmentzen dira lortu ahal izateko: "...arduratu hurrek lehen haurtzarotik gatazkak era baketsuan eta giza duintasuna errespetatuz, tolerantziaz eta bazterketarik gabe ebazteko aukera emango dieten balore, jarrera, jokabide eta bizitzeko moduei buruzko irakaspenak jaso ditzaten". Hezkuntza bai formala eta bai informala, familian eta eskolan, elementu giltzarria da bake

kulturaren eraikuntzan, haurtzarotik hasita baloreak transmititzeko eta jokabideak ikasteko bidea den aldetik.

Bide honetan, ikastetxeak, duela zenbait urtetatik hona zeregin aktiboa eta erabakigarria betetzen ari dira Elkarbizitza Planak garatuz. Plan hauetan, ikastetxeetan elkarbizitza eta bakerako heziketa hobetzeko inplementatzen diren neurri eta estrategiak zehazten dira.

Horregatik, Leioako Udalak argitalpen xume honekin, "Eskola-elkarbizitzarako programak eta estrategiak" ikastetxeen lan hau babestu nahi du, eta hain garrantzitsua den zeregin honetan lagundu.

Gida hau lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako irakasleei, zuzendaritza-taldeei eta hezkuntza alorreko beste profesional batzuei zuzendua dago. Azken batean, egunez egun, pertsonak hezteko eta bake kulturaren baloreetan oinarritutako gizartearen etorkizuna eraikitzeke lan eskergan, duten onena ematen duten guztiei. Hauei guztiei, eskerrik asko eguneroko lanarengatik.

1

Eskola-elkarbizitza: programak eta estrategiak

XXI. mendeko hezitzaileentzako erronkarik garrantzitsuenetako bat ikasgelan indarkeria prebenitzea eta eguneroko gatazkak ebaztea da, baina, batez ere, erronkarik handiena, ikasleen hezkuntza integrala elkarbizitzarako eta bakerako hezkuntzaren ikuspegitik fokatzea da. Planteamendu honek azpimarratu egiten du hezkuntza-sistemak, bai formala eta bai ez formala, duen gaitasuna gure gizarteari Bake Kulturaren printzipioetan oinarritutako eredu baterantz eraldatzen laguntzeko.

Ortegaren (1997) hitzetan, "...ikastetxean, elkarbizitza hezkuntza-komunitateko kide guztien artean gertatzen diren pertsonarteko harreman-saretzat ulertzen da, eta bertan taxutzen dira komunikazio-prozesuak, sentimenduak, baloreak, jarrerak, rolak, statusa eta boterea". Harreman-sare honi arazo edo gatazka desberdinek erasaten diote: diziplina ezak, pertsonarteko gatazkek, ikaskideen arteko tratu txarrek, ikasgelako disrupzioak, absentismoak, bandalismoak, etab.

Hori guztia ikastetxe bakoitzeko elkarbizitzan eragiten duten hainbat faktoreren menpe dago. Besteak beste, hauek dira nagusienak: pertsonarteko harremanak, gatazken ebazpena, araudia edo diziplina-sistema, hezkuntza komunitateko sektore ezberdinen parte-hartzea, irakaskuntza-ikaskuntza metodologia eta ikasgelaren kudeaketa.

Honela, ikastetxeen erantzuna egoera hauen aurrean eta bere eraldatzaile- funtzioa, eskola-elkarbizitzaren eredu global batean oinarritu behar da. Honek zera esan nahi du: lehenik, guztien inplikazio zuzena -irakasleak, zuzendaritza-taldeak, ikasleak, familiak, irakasle ez diren langileak eta inguruko beste eragile batzuk; bigarrenik, eredu global batek zenbait programa eta estrategia abian jartzea eskatzen du, gutxienez, honakoei helduko dietenak: ikasgela mailako trebetasunak eta gaitasunak eskuratzea edo garatzea, lankidetzan oinarritutako gatazken ebazpena, araudia eta ikastetxean parte-hartzeko bideak.



Argitalpen honen helburua ikastetxeei programa edo estrategia horiek aukeratzen laguntzea da, kontuan izanik bakoitzak bere behar eta lehenetasunei ondoen erantzuten dieten haiek landu behar dituela. Horretarako, gaur egun ikastetxeetan inplementatzen ari diren proposamen edo ekimenen aukera sorta aurkezten da. Ez dira guztiak, baina bai erabilienak eta eraginkortasun ezagunekoak.

Nolanahi ere, proposamen hauetako bat edo beste edozein abian jartzeak, arrakasta bermatzeko, ahalik eta planifikaziorik eta koordinaziorik handiena eskatzen du. Beharrezkoa da Elkarbizitza Plan bat esplizitu egitea eta bertan jardueraildo nagusiak markatuko dira, jarraitu beharreko printzipioak eta burutu beharreko jarduerak, hezkuntza komunitateko partaideen parte-hartze zabala lortzen ahaleginduz, urteko programazioan islatutako helburuak zehaztuta.

Elkarbizitza Plan hau garatzeko prozesua ere garrantzitsua da. Elkarbizitzaren eta ikastetxeko

beharren diagnostikotik abiatuta, lehenetasuneko helburuak eta abian jarri beharreko ekintzak ezarriko dira, horretarako beharrezkoa den irakasleen prestakuntza planifikatuko da, aukeratutako programa edo estrategiak abian jartzeko koordinazioa, eta jarraipena eta ebaluazioa planifikatuko dira.

Azkenik, ezinbestekoa da adieraztea programa hauen aplikazioa ez dagoela salbuetsita ikasleek sortutako gatazkak berak baino haragoko zailtasunetatik. Besteak beste, alderdi hauek aipa daitezke: ikastetxeetan irakasleen funtsezko kohesioa eta langileen egonkortasuna, irakasleen prestakuntza, familiekiko eta inguruko beste eragile batzuekiko koordinazioa, eta hezkuntza Administrazioaren zalantzarik gabeko babesa baliabide materialak eta giza-baliabideak emanez, eraginkortasun handiagoa bermatzeko eskola-gatazkak eta elkarbizitzarako heziketari aurre egiteko erabiltzen diren tresna psiko-pedagogiko hauek guztiak ezartzean.

2

Gatazken ebazpenerako curriculum programa

Zer da eta zertarako balio du

Gatazkak kudeatzeko edo maneiatzeko trebetasunak beharrezkoak dira, gatazkak eguneroko bizitzaren parte baitira. Gatazkak oso sinpleak izan daitezke, esate baterako, lagun arteko gaizki ulertze bat, edota oso konplexuak, hala nola, etxeko indarkeria. Elkarbizitza-eredu positibo bat eguneroko gatazkarik gehienak sortu ahala ebazten ahaleginduko da, konplexuago eta bortitzago bihurtu baino lehen. Zoritzarrez, haur eta gazte gehienek ez dute gatazkak modu eraikitzailean ebazteko behar den trebetasunik. Eskolak funtsezko zeregina bete dezake ikasleen gizarteratze-prozesua zuzentzeko garaian eta, horregatik, aurre egin diezaioke aipatutako defizitari, gatazkak ebazteko programak praktikan jarrita. Hori dela-eta, ikastetxeetan egunero lantzen eta praktikatzen den gatazkari aurre egiteko heziketa inplizituaz gain, gaur egun, geroz eta beharrezkoagoa ikusten da gelako gatazken ebazpenerako trebetasunen eta prozesuen instrukzio zuzena sartzea.

Gatazken ebazpenerako curriculum honela defini liteke: gelan landutako instrukzio-jarduera sekuentziatuen multzo planifikatua; hauen helburua ikasleei gatazkak ebazteko trebetasun eta estrategia baketsuak irakastea da. Beronen helburu zehatzen artean hauek aipa daitezke:

- * Gatazkari buruzko uste ezkorrak aldatzea.
- * Ikasleei euren bizitzan gatazkaren kontzientzia hartzen laguntzea.
- * Ikasleei laguntzea gatazka batean emozioek duten rola ulertzen eta modu egokian kudeatzen.
- * Oinarrizko trebetasunak irakastea, hobeto eta eraginkortasun handiagoz komunikatzeko.
- * Ikasleei gatazkak ebazteko elkarlaneko prozesu baketsuak praktikatzen eta erabakiak taldean hartzen irakastea.

Era honetako curriculuma ikasgelan aplikatzea posible da hezkuntzako etapa guztietan, haur hezkuntzatik hasi eta batxilergora arte. Material didaktiko ugari dago maila bakoitzari egokituia.

Instrukzio-jarduera hauek irakats daitezke gainerako

eskola-curriculumetik bereizita, ordutegi berezi bat eskainita, edota sar daitezke curriculum akademiko zentraleko irakasgaietan, hala nola, hizkuntza, historia, gizarte zientziak, zientziak, matematikak, gorputz hezkuntza, etab.

Zer izan behar da kontuan

Ikasgelan egiten diren jarduerak esperientzia- edo bizipen-metodologia eskatzen dute, hau da, ez dira kontzeptuen aurkezpen teoriko soilak. Ikaskuntza-metodologia honek irakasleak laguntzaile papera har dezan eskatzen du eta ez irakasle tradizionalarena.

Komenigarria da ikasgeletan programa hau garatu behar duten irakasleek oinarrizko prestakuntza bat jasotzea, ikasleei irakatsiko zaizkien gatazken ebazpenerako kontzeptu eta trebetasunetan zentratua.

Planteatutako helburuak lortze aldera, funtsezkoa da jarduerak sistematikoki burutzea ikasturtean zehar, asteroko maiztasunez, edo, asko jota, hamabostean behin.

Ikasturte bakoitzean hamabi jarduera egin behar dira gutxienez.

Programak prebentzio- eta heziketa-izaera garbia du, eta bere emaitzak ikusgarriagoak dira epe ertainean.

Era honetako programa aplikatzeak aurretik planifikatzea eta antolatzea eskatzen du eta horrek bermatuko du esperientziaren arrakasta. Ezinbestekoa da alde aurretik definitzea hainbat alderdi:

- * Gelak eta programa aplikatu behar duten tutore edo irakasleak. Gomendagarria da era honetako programa baten aplikazioa gela bakoitzean borondatezkoa izatea tutorearen aldetik.
- * Gelan egin beharreko jardueren sekuentzia aukeratu, ziklo edo kurtso bakoitzerako eredu bat sortuta, haur hezkuntzatik batxilergoraino.
- * Jardueren programazio-egutegia ikasgela bakoitzean.
- * Gomendagarria da irakasle-talde batek programaren koordinatzaile lana egitea, bere inplementazioaren oinarrizko diseinua eginez eta beronen eragile eta gainbegirale gisa jardunez.

3

Adimen emozionalaren programa

Zer da eta zertarako balio du

Azken urteotan, emozioen heziketa eskola esparruan sartzeko helburuz, “Heziketa emozionala” edo “Heziketa sozio-emozionala” izeneko hezkuntza-mugimendu handia sortu da.

Mugimendu hau Adimen Emozionalaren gaitasun eta trebetasunen garapena bultzatzen duen hezkuntza-ereduan oinarritzen da. Hitzak, mundu mailan ezaguna Daniel Golemanen izen bereko best seller-aren argitalpenaz geroztik, zera esan nahi du: jarrera, trebetasun eta gaitasun multzoa eta norbanakoaren jokabidea, erreakzioak, egoera mentalak, etab. baldintzatzen dituzte; Golemanen beraren hitzetan, honela defini daiteke: “*geure sentimenduak eta besteenak ezagutzeko, motibatze eta harremanak egoki maneiatzeko gaitasuna*”.

Adimen emozionalak bost gaitasun mota eskatzen ditu. Lehenengo hirurek pertsona barruko izaera dute eta azken biek pertsonarteko izaera:

- * **1. Kontzientzia emozionala.** Zer sentitzen dugun konturatzeko eta kontziente izateko gaitasuna eta emozioei izena jartzeko gaitasuna da. Halaber, beste pertsonen emozioak identifikatzea eta haiei buruz kontziente izatea ere esan nahi du.
- * **2. Erregulazio emozionala.** Geure emozioak erregulatzeko trebetasuna da, emozio positiboak garatzeko eta bulkadak kontrolatzeko trebetasuna.
- * **3. Autonomia emozionala.** Nork bere buruarenganako konfiantza garatzea esan nahi du, autoestimua eta pentsamendu positiboa izatea eta nork bere burua motibatzea.
- * **4. Trebetasun sozio-emozionalak.** Nabarmenena aktiboki entzuteko gaitasuna, asertibo izatekoa, gatazkak modu eraikitzailean ebaztekoa eta taldean lan egiteko gaitasuna dira.
- * **5. Pertsonaren bizitzarako eta ongizaterako trebetasunak.** Bizitza osasuntsua eta orekatua antolatzea lortzeko trebetasunak dira, baita antolatze eta garapen pertsonal eta

sozialerako gaitasuna eta bizitzaren aurrean jarrera positiboa izatekoa ere.


Azken ikerketek erakutsi dute trebetasun hauetako gabeziak eragina duela ikasleengan. Izan ere, jokabidezko arazoak eragiten ditu pertsonarteko harremanekin zerikusia dutenak, ongizate psikologikoari erasaten dio, errendimendu akademikoari eta jokaera disruptiboari.

Ikuspegi honetatik, heziketa emozionala beharrezko zeregin bihurtu da eskola esparruan. Irakaslerik gehienek funtsezkoa jotzen dute trebetasun hauek menperatzea ikasleen garapen ebolutibo eta sozio-emozionalerako eta ikastexetako elkarbizitza positiboaren garapenerako.

Bisquerraren ustez (2000) heziketa emozionala zera da *“prozesu hezigarria, jarraitua eta iraunkorra, eta bere helburua da garapen emozionala indartzea ezagutza-garapenaren ezinbesteko osagarri gisa, biak izanik nortasun integralaren garapeneko funtsezko elementuak. Ikasleak ezagutza eta gaitasunekin trebatzea, hauek emango baitiote aukera bizitza pertsonal eta profesionalari arrakastaz aurre egiteko, eta bere ongizatea handitzeko osasun eta elkarbizitza mailan”*.

Ikerketa guztiak bat datoz emozionalki adimentsuak diren ikasleen ezaugarrietan, laburbilduz, hauek direlarik:

- * Autoestimu-maila ona dute.
- * Gehiago eta hobeto ikasten dute.
- * Jokabidezko arazo gutxiago dituzte.
- * Pertsona positiboak eta baikorrak dira.
- * Hobeto jasaten dute ikaskideen presioa eta zailtasunik gabe gainditzen dituzte frustrazioak.
- * Ongi ebatzen dituzte gatazkak.
- * Zoriontsuago, osasuntsuago dira eta arrakasta handiagoa dute.




Esku-hartzeko ereduak

Esku-hartzeko ereduak oso anitzak dira. Hauek nabarmendu behar dira:

- * **Noizbehinkako orientabidea.** Irakasleak momentuko aukera aprobetxatuko du heziketa emozionalaren inguruko ezagutzak emateko.
- * **Eskolaz kanpoko programak.** Eskolaz kanpoko ordutegia erabiliko da, boluntarioki.
- * **Hautazko irakasgaiak.** Hautazko irakasgaiak eskainiko dira heziketa emozionalari buruz.
- * **Tutoretza-ekintza.** Tutoretza-ekintzaren planak heziketa emozionala hartuko du barne.
- * **Integrazioa Curriculumean.** Heziketa emozionaleko edukiak zeharka integratu materia akademiko anitzetan zehar eta hezkuntza-maila guztietan zehar.

4

Lankidetzajolasak



Zer dira eta zertarako balio dute

Jolasa jarduera guztiz ludikoa da eta, gainera, heziketa izaera eta hezteko ahalmen handia du. Ez da berria jolastuz ikasi egiten dugula.

Lankidetzajolasak jolas mota bat dira eta hauen ezaugarri nagusia da jolaskide guztien elkarlana eskatzen dutela emaitza lortzeko. Parte-hartzaileek helburu eta arau berberak onartu behar dituzte, aktiboki hartu behar dute parte eta koordinatu egin behar dute jolastu ahal izateko. Beste jolas batzuen aurrean, eredu honetan ezabatu egiten da lehiakortasuna, ez dago galtzaile edo irabazlerik; taldeak edo jolasak planteatutako helburua lortuko du, edota ez du egingo; denek galduko dute edo denek irabaziko dute.

Lankidetzajolasean helburuak bateragarriak dira jolaskide guztientzat, beste jolas batzuetako arerioak, hemen, aliatu bihurtzen dira, ikuspegia inklusiboa da; izan ere, inor ez baita kanporatzen eta, batez ere, prozesura zuzendua dago eta ez emaitzara, garrantzitsua besteekin elkarlanean parte hartzea da.

InteRed GKE izan da gure inguruan lankidetzajolasaren sustatzaile nagusia eta, Kometarekin

elkarlanean, jolasaren balore-dekalogoak egin dute. Bertan lankidetzajolas batek bete beharreko baldintzak nabarmentzen dira Honako hauek dira:

- * Plazera. Jolasa “bizi-poza da, momentuz gozatzea da”.
- * Hazkuntza. Oinarri sendoak dituen zoriona eraikitzen du.
- * Askatasuna. Pertsonak aukeratzen dute jolastu edo ez.
- * Aniztasuna. Jolasa errepika ezina da, inoiz ez baita berdin garatzen.
- * Integrazioa. Parte hartzaileen integrazioari laguntzen dio “jolasaren arauak eta dinamika ezagutzetik, entzutetik, ulertzetik eta onartzetik abiatuta”.
- * Sormena. Etengabe irtenbide berriak, ideiak eta jolasteko modu desberdinak ekartzeko aukera ematen du.
- * Parte hartzea. Komunikatzeko, entzuteko,

gizarteratzeko eta elkarreragin sozialerako tresna da.

- * Gatazken eraldatzailea. Bertan erabakiak hartzen dira, ekintza-estrategien bidez egoera arazotsuak konpontzen laguntzen du.

* Lankidetzaren helburua parte-hartzaile guztien ahaleginaren bidez lortzen da.

- * Kultura artekotasuna. Jolasak "izateko, bizi izateko, sentitzeko eta jokatzeko modu desberdinak deskubritzen, ezagutzen eta errespetatzen" laguntzen du.

Lankidetzaren jolasak eta elkarbizitzarako heziketa

Lankidetzaren jolasa heziketarako tresna da, hainbat balore sustatzen ditu: elkarri laguntzea, besteenganako konfiantza, tolerantzia eta adostasuna bilatzea.

Ikasgelan lankidetzaren jolasen programa garatzeko estrategiak Maite Garaigordobilen hitzetan, gai honetan autorerik entzutetsuenetako bat, "ekarpen positiboak sortzen ditu norbanakoaren garapenerako eta talde barneko harreman sozio-afektibo eta elkarlan-harremanetarako, gelako testuinguruan; beraz, argi uzten du jokabide prosozialak sustatzean zentratutako izaera pedagogikoa". Gainera, azpimarratzen du "elkarlaneko jarrerak berekin daramatzatela autokontzeptuaren, enpatiaren, nor bere buruaganako eta besteekiko estimuaren, komunikazioaren, gizarte harremanen garapena; poza handitzen du, porroterako eta besteek baztertua izateko beldurra desagertu egiten baita".

Aurrekoa kontuan hartuta, nabarmena da lankidetzaren jolasaren, eskola-elkarbizitzaren eta bake-heziketaren arteko harreman estua.

Asko dira gelako testuinguruan burutu daitezkeen lankidetzaren jolasak. Ikasleen adinaren arabera eta jarritako helburuen arabera jolas egokiak aukeratzeaz gain, garrantzitsua da jolas-programa bat egitea sistematikoki eta modu jarraian, jolasa astean behin edo hamabostean behin eginez bolada batean zehar.

Lankidetzaren jolasak arrakasta izateko beste funtsezko alderdi bat garatzerakoan erabiltzen den metodologia da. Ikuspegi sozio-afektiboa da behar den ikuspegi pedagogikoa, zuzeneko esperimendazioan oinarritzen baita ikaskuntzarako. Esperimendazio hau da lehen urratsa, eta bertatik abiatuta hausnarketa egingo da taldean, bizipenez eta honek jolaskideen benetako bizitzarekin duen harremanaz.

5

Dilema moralak



Zer dira eta zertarako balio dute

Dilema moralak kontaketa laburrak dira, istorioen antzekoak, egoera hipotetiko edo errealen kontaketak; balore gatazka bat planteatzen dute eta egoera hori konponduko duen erabakia hartzea eskatzen dute. Dilemari proposatutako irtenbidea arrazonamendu moral batean oinarritu eta zuzenena jotzen dena izan behar da.

Oro har, egoera aukera disjuntibo baten gisa aurkezten da: subjektu protagonistak egoera erabakigarri baten aurrean aurkitzen du bere burua eta bi aukera soilik ditu, biak izanik egingarriak eta defendagarriak. Beraz, norbanakoa benetako gatazka egoera saihestezin baten aurrean egoten da.

Ikasgelan dilema moralekin lan egiteak zenbait helburu ditu:

- * Ikasleen garapen eta hazkuntza morala sustatzea, bai ezagutza alderdietan, eta bai afektibitate eta jarrerazko alderdietan ere.
- * Gure garaiko arazo etiko nagusien kontzientzia hartzea.
- * Ikaskideen arteko elkarbizitza bultzatzea, arazoak ulertzen eta hauen aurrean jarrerak

hartzen lagunduko duen arrazonamendu koherentea garatzeko.

- * Errespetuaren eta tolerantziaren garapena sustatzea, ikuspegi berriak hartzeko eta rol desberdinak nor bere egiteko gaitasuna suspertuz.

Zer izan behar da kontuan

Dilema moral bat hautatzeko edo lantzeko garaian, badira aintzat hartu beharreko funtsezko alderdiak:

- * Dilemak esanguratsua izan behar du, taldearentzat planteatzen duen arazo motari dagokionez; beraz, garrantzitsua da lan egin behar den taldeko partaideak ezagutzea: adina, ezagutza-maila, gehienen interesak, etab.
- * Dilemaren planteamendua ikasleek ulertzeko moduan egin behar da. Horregatik, istorioa kontatzea eta ondo idaztea oso garrantzitsua da ulertzeko eta ondorengo eztabaidarako.

- * Dilemak eztabaida-sortzailea izan behar du. Horretarako, taldeak irtenbide desberdinak emateko moduko dilemak landu behar dira eta gertaerek balore moraleko gaien inguruan zentratuta egon behar dute. Eztabaidak moralki zuzenena iruditzen zaion irtenbidea zehaztera eraman behar du taldea.
- * Dilemak argi definitutako pertsonaia zentral batzuk aurkeztu behar ditu, eta aukera argiak eta bereiziak euren artean aukeratu ahal izateko.
- * Dilemaren planteamenduak beti era honetako galderekin amaitu behar du: zer egin behar du/ luke Xek?, helburua istorioko protagonistaren betebeharrak morala argi agertzea izanik.
- * Komenigarria da planteatutako dilemarekiko aukera batzuk planteatuta izatea, baldin eta ikasleak arazoa harrapatzen ez badu eta eztabaida ezinezkoa gertatzen bada.
- * Dilemaren eztabaidak ez du bihurtu behar ikasle bakoitzak bere bizipena kontatzeko talde-terapia antzeko bat.
- * Irakasleak saihestu egin behar du irtenbideak edo bere iritzia ematea dilemari buruz, izan ere, ikasleak baitira balizko irtenbideak bilatu beharko lituzketenak.
- * Komenigarria da muturreko planteamenduak (hargatik) ekiditea. Aukera bakoitzak argudiatua izan behar du kontuan izateko.

Nola funtzionatzen dute

Dilema moral bat ikasleei planteatzeko eta beraiekin eztabaidatzeko, fase batzuei jarraitu behar zaie:

- * **1. Dilemari aurre egin.** Irakasleak dilema aurkeztuko dio taldeari testu, irudi, marrazki, telebistako saio edo film zatien bidez edota ikasleek egindako antzerki baten bidez. Ezinbestekoa da ziurtatzea taldeak argi ulertu duela dilema, eta, horretarako, galderak egingo dira edukiari buruz.
- * **2. Hasierako jarrera.** Bigarren fase honetan, ikasle bakoitzak jarrera bat hartuko du dilemaren aurrean, balizko irtenbideetako baten alde agertuz. Gainera, bere aukeraren arrazoiak zehaztu beharko ditu. Irakasleak ikasle batzuk animatuko ditu hasierako jarrera aurkeztuz eta argudiatuz esku hartzera. Beharrezkoa da dilemaren balizko irtenbideetako bakoitza defendatuko duten jarrerak aurkeztea.
- * **3. Eztabaida talde txikietan.** Gelakideak talde txikietan banatuko dira eta bakoitzak bere taldean adieraziko du iritzia eta beste kideena entzungo du. Eztabaida jarrera bakoitzaren oinarrian dauden argudioak aztertzean eta dilemari balizko aukerak bilatzean zentratuko da.
- * **4. Eztabaida orokorra.** Aurreko faseko talde txiki bakoitzak denen aurrean azalduko ditu lortutako ondorioak. Fase honetan, irakasleak taldeek antzeman gabeko alderdiak sartuko ditu eta jarrera bakoitzaren ondorioei buruzko hausnarketa egiten lagunduko du. Halaber, garrantzitsua da dilema ikasleen eguneroko egoerekin erlazionatuta aztertzea.
- * **5. Norbanakoaren azken jarrera.** Ikasle bakoitzak idatziz jasoko du bere azken jarrera, aurreko eztabaida kontuan izanda eta oinarrian dituen argudioak adieraziz.

6

Diziplina positiboa


Zer da eta zertarako balio du

Diziplina, ikastetxeetan elkarbizitzarako oinarritzko arauak bere egitea eta betetzea, funtsezko elementua da eskola-elkarbizitzaren kudeaketarako eta baloreetan oinarritutako heziketarako.

Heziketa-tresna nagusizat hartzen badugu kultura demokratikoa eta elkarbizitza positibokoa eraikitzeko, autoritatean eta zigorrean oinarritutako diziplina-eredu tradizionalak ordezkatu behar ditugu diziplina positibo, demokratiko eta hezitzaileaz.

Diziplina eredu tradizionala eraginkorra izan daiteke kontrolaren ikuspegitik eta ordena mantentze aldetik, baina ikasleen prestakuntza moral eta autonomoaren aldetik ez da hain egokia. Hain zuzen ere, autoerregulazioa da diziplina positiboaren helburua eta, horretarako, ikasleek arauak eta ondorioak sortzen parte hartzea ezinbestekoa da. Ikasleek gelako arauak uler ditzaten, onar ditzaten eta babes ditzaten, sorkuntzan eta berrikusketan edo jarraipenean aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dute.

Arauen ondorioek izaera batez ere hezigarria dute, zigorrak ez bezala, indargarri negatibotzat edo



saihestu beharreko zatitaz ulertzen delarik. Izaera berreskuratzailerako zigor edo zuzenketa gisa ulertzen dira eta ez zigor hutsezko gisa, jokaera desegokia birbideratzera zuzenduak, ikaslearen portaera taldeak ezarri eta onartutako araura egokitzea lortu arte.

Honako koadro honek era konparatiboa erakusten ditu eredu baten eta bestearen ezaugarri nagusiak.

Diziplina zigortzailea	Diziplina positiboa
Kanpoko erregulazioa, indargarri positiboan edo negatiboan zentratua	Autoerregulazioa
Ezarritako arauak	Adostutako arauak
Autoritatea irakasleen nagusitasun hierarkikotik dator	Autoritatea sistematik dator
Zigorra (indargarri negatiboa)	Ondorio hezigarriak

Diziplina positiboaren programa ikasgelan

Cruz Perezi (1999) jarraituz, diziplina positiboa ikasgelan programak helburu nagusi hau du, *“...ikasleen parte hartze demokratikoaren bidez lantzea arau eta ondorio sail bat, talde-gelaren autogobernurako aukera eta ikasleen autonomia, elkarlan eta arduraren hobekuntzarako aukera eskainiko dutenak”*.

Ikasgelako esku-hartze mota hau derrigorrezko hezkuntzako etapa guztietan landu daiteke, kontuan izanda egin beharreko aldaketa metodologikoak eta zuzendaritza-maila irakaslearen zereginen.

Programa hau geletan lantzeak tutore-ekintza bat planifikatzea eskatzen du, aurrez definitutako helburua lortzeko behar diren jarduerak antolatu eta bideratuko dituen. Horretarako, lau-hamabi tutoretza-saio erabili ohi dira, ikasturtea hastean.

Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzako lehen zikloan, arazoak edo zailtasunak sortu ahala egingo dira arauak. Gainerako mailetan, prozesua bi fasetan banatuko da. Lehenengoan, adostasunez, talde-gelako arauak eta hauen ondorioak landuko dira. Normalean fase hau hainbat tutoretza-saiotan garatzen da ikasturteko lehen hiruhilekoan. Bigarren faseak arau-sistema berria abian jartzea

eskatzen du. Arau bat betetzen ez denean ondorioak aplikatzea beti irakaslearen zeregina da eta, idealki, taldeari klasea ematen dioten irakasle guztiek onartuko eta indartuko dute adostutako araudia.

Ikasgelan arauak eta ondorioak sortzeko prozesuak honako fase hauek eskatzen ditu:

- * **1. Fasea:** Araudi inplizitu eta esplizituaren berrikusketa.
- * **2. Fasea:** Edozein talde edo erakundek duen araudi premiaren sentsibilizazioa eta kontzientziazioa.
- * **3. Fasea:** Gelako arauen eta hauen ondorio hezigarrien proposamena.
- * **4. Fasea:** Arauen eta ondorio hezigarrien negoziazioa eta adostasuna.
- * **5. Fasea:** Araudi berriaren funtzionamenduaren berrikusketa eta jarraipena.

7

Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa

Zer da eta zertarako balio du

Belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren txokoa elkarrizketarako prozedura eta egitura da; txoko honek ikasleei gatazkak autonomoki, pertsona heldu baten laguntzarik gabe, irakaslerik gabe ebazteko aukera ematen die.

Txokoaren erabilera bereziki egokia da haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetarako. Bai ikasgela eta bai espazio komunak (pasilloak, patioak, ludotekak,...) toki egokiak izan daitezke "txoko" bat kokatzeko. Ikasleen artean izaten diren intentsitate baxuko pertsonarteko gatazkak ebazten dira ondoen belarri-aulkiaren eta aho-aulkiaren prozeduraren bidez.

Ikasgelan, atzealdean kokatuko da "txokoa", irakaslearen tokiaren beste muturrean. Toki honetan, bereziki horretarako gordetako lekua eta beste inolako jarduerarik egiten ez dena, bi aulki jarriko dira, eta aulkietako bakoitzaren funtzioa izango da eseriko denari rol bat ematea. Bat belarri-aulkia izango da eta bestea aho-aulkia. Bizkarraldean erantsitako marrazki handi baten bidez bereiziko dira bi aulkiak, batean belarria eta,



bestean, ahoa. Beste aukera bat da kartel bat zintzilikatzea horman bi marrazkiekin.

Bi ikaslek gatazka bat dutenean gela barruan, irakasleak txokora gonbidatuko ditu beren kabuz konpontzen ahalegin daitezzen. Proposamena beti gonbidapena izango da eta ez inposizioa, izan ere, bere erabilera borondatezkoa izan behar baita.

Kasu askotan, eta gero eta maizago, ikasleak bere kabuz joango dira txokora gatazka bat dutenean Jokaera hau, hilabeteak igaro ahala, sistematikoago bihurtuko da.

Nola funtzionatzen du

Txokoan, bakoitza aulki batean eseriko da. Tokia gainerako ikaskideengandik bereizita dago, ikasleak bakarrik daude eta bere elkarrizketa pribatua da. Belarri-aulkikoak ahalik eta adien entzungo dio lagunari eta ezin du hitz egin, ezta ezpainak ireki ere, etenik gerta ez dadin. Beste ikaslearena, aho-aulkikoarena da hitz egiteko txanda.

Prozedura urrats edo arau hauen bidez garatuko da:

- * 1. Lehendabizi, aho-aulkian eseritako haurrak du hitza eta bere eginbeharra zer gertatu den eta nola sentitzen den kontatzea da, ikaskideak belarri-aulkian eserita erne entzuten duen bitartean.
- * 2. Lehendabiziko haurrak hitz egiten amaitutakoan, aulkiz aldatu eta eginkizunak aldatu egingo dituzte. Orain bigarren haurrak izango du hitza, bere ustez, zer gertatu den eta nola sentitzen den azaltzeko.
- * 3. Hizketarako bigarren txandan, lehendabiziko haurrak, berriro ere aho-aulkian eserita, berak zer egin dezakeen gatazka edo arazoa konpontzeko esango du.
- * 4. Berriro ere, aulkiak eta rolak trukatu egingo dira eta bigarren haurrak ere berak gatazka konpontzeko zer egin dezakeen proposatuko du.


Prozesu honek bi txanda izan ohi ditu gatazkan inplikaturako bakoitzarentzat, nahiz eta zenbaitetan ikasleak gehiagotan pasatzen diren aulki bakoitzetik, bien gustukoa den irtenbidea topatu arte.

“Txoko”aren funtzionamendurako urrats edo arau hauek kartel batean erakutsiko dira aulkien ondoko horman, bai idatziz, lehen hezkuntzan, edota bai marrazki bidez, haur hezkuntzan.

Behin prozesua amaituta, ikasleak irakaslearengana joango dira eta honek gertatutakoaren jarraipen txiki bat egingo du. Galdetuko die ea irtenbiderik aurkitu duten, zertan datzan eta biak gustura dauden konponbide horrekin. Hala bada, ikasleak gelako lanetara itzuliko dira. Irtenbide adostu bat lortu ezean, irakasleak beste aukera edo prozesu bat proposatuko du egoerari heltzeko, esate baterako, bitartekaritza edota ondorio hezigarriren bat betearaztea.

8

Bitartekaritza Programa



Zer da eta zertarako balio du

Eskola-bitartekaritzako programa batek eskatzen du ikastetxean bitartekaritzako zerbitzu bat garatzea, hezkuntza-komunitateko talde desberdinen (ikasle, irakasle, irakasle ez diren langile, aita eta amak,...) arteko gatazkak ebazteko.

Bitartekaritza gatazkak ebazteko metodo egituratua da; bertan, hirugarren alde batek gatazkan dauden aldeei laguntzen die haien kezkak entzunez, komunikazioa erraztuz eta negoziatzen lagunduz. Bitartekariak aldeei irabazi-irabazi irtenbideak sorrarazten ahalegintzen dira. Nahiz eta bitartekariak prozesuaren ardura hartu, aldeek gatazkaren irtenbideari buruzko erabakiak hartzeko gaitasunari eusten diote.

Eskola-bitartekaritzako programek hauek izaten dituzte bere helburuen artean:

- * Inplikaturako aldeek, edozein arrazoirengatik maneiatu ezin izan dituzten gatazkak ebaztea.
- * Eskola-komunitateko partaideen parte hartzea onartzea bere gatazken konponketan.

- * Gatazkak ebazteko trebetasunak irakastea programan inplikaturako taldeei.
- * Elkarbizitza hobetzea.
- * Indarkeria mailak murriztea.

Bitartekaritza ez da egokia edozein eratako gatazkari aurre egiteko, batez ere, aldeen artean botere desoreka esanguratsua dagoen haietarako, esate baterako, ikaskideen arteko tratu txarrak. Pertsonarteko harreman-gatazkak dira egokienak bitartekaritzan lantzeko.

Gainera, bitartekaritzak ongi funtziona dezan, hainbat printzipio errespetatu behar ditu, hala nola, gatazka duten pertsonen parte hartzeko boluntariotasuna, prozesuaren konfidentzialtasuna, eta aldeen gaitasuna ardurak hartzeko eta erabakiak askatasunez hartzeko, bitartekariaren esku-sartzerik gabe.

Bitartekaritza-eredu motak

Gaur egun, bitartekaritza-eredu desberdinak lantzen dira ikastetxeetan:

1. Helduen aldetiko bitartekaritza.

Eskolan helduek egindako bitartekaritza da, normalean irakasle eta zuzendaritza-taldeko kideek egindakoa, bitartekaritza bertikala izena ere hartzen duena, agian, aplikatzen errazena. Pertsona hauek prestakuntza berezia jasotzen dute bitartekaritza alorrean, eta prozesua ikastetxean duten zeregin hezigarriko beste tresna bat gehiago bailitzan erabiltzen dute. Bitartekari lanean, helduek ikasleei aholkuak ematen dizkiete talde bakoitzak arazoaz dituen pertzepzioa eta sentimenduak aztertzeke prozesuan, eta baita balizko irtenbideak bilatzen eta bi aldeen beharrak ondoen asebeteko dituzten akordioak egiten ere.

2. Berdinen arteko bitartekaritza.

Bitartekaritza-programa hauen ezaugarri nagusia da gatazkan dauden aldeen ikaskideak berak direla bitartekariak. Honela, bi ikasle badira gatazka dutenak bitartekariak ere ikasleak izango dira, eta gatazka ikasle baten eta irakasle baten artean sortzen bada, bitartekariak, era berean, ikasle bat eta irakasle bat izango dira. Bitartekari-taldea ikasleen artean, edota irakasleen artean hala behar bada, aukeratuko da; talde honek trebatze berezia jasoko du zeregin hau betetzeko. Berdinen arteko bitartekaritza bi era desberdinetan garatzen da:

- * **a) Patioko atsedendiko ereduak.** Ikasleek gatazkaren bat dutenean atsedendian edo jangelan, une horretan bertan, jo dezakete adiskide bitartekari batengana laguntza eske.

Bitartekaritza hau, izaera informalagoa duena, une eta toki horretan bertan gertatuko da. Bitartekaritza mota hau lehen hezkuntzan egin ohi da.

- * **b) Eredu deribatua.** Eredu deribatua, berezkoagoa bigarren hezkuntzan, esku-hartze formalagoa da, eta hainbat fase gertatzen dira, azkenean, ikastetxeko bitartekaritza-zerbitzuaren bidez lantzeko gatazka bat. Hasiera batean, gatazka irakasle batek, zuzendaritza-kide batek edo ikasle batek bideratuko du bitartekaritza-zerbitzura; jarraian, bitartekaritza-zerbitzuko koordinatzaileak bildu egingo dira, bakarka, gatazkako protagonistekin, informazioa jasotzeko eta bitartekaritzara jotzeko aukera eskaintzeko; aldeek bitartekaritza egitea onartuz gero, bitartekariak izendatuko dira kasurako eta bitartekaritza antolatuko da; handik egun batzuetara, bitartekaritza-prozesua garatuko da eta, azkenik, aurrerago, emaitzaren jarraipena eta ebaluazioa egingo da.

Lagunen edo berdinen arteko bitartekaritza-programak parte hartzean, elkarlanean eta elkarriketan oinarritutako elkarbizitza baketsuaren zerbitzurako tresnak dira. Eskola-bitartekaritzako zerbitzuak ikastetxeetan integratuta geratzen dira eta ikasleak eta irakasleak berak dira koordinatzen eta bideratzen dutenak. Eskola-bitartekaritzako programa bat asko alda daiteke ikastetxe batetik bestera, bakoitzaren behar eta baliabideen arabera. Horregatik, komenigarria da diseinu berezi bat egitea ikastetxe bakoitzerako.

9

Ikasle laguntzailearen programa

Zer da eta zertarako balio du

Ikasle laguntzailearen programak ikasle talde bat sortzea eskatzen du eta, prestakuntza berezia jaso ondoren, hainbat laguntza-funtzio beteko dituzte ikaskideekin. Helburua da zailtasunak dituzten ikasleei laguntza-sare zehatz bat eskaintzea. Rosario Ortegaren ustez, programa honen bidez "ahulezia egoerako edo arrisku sozialeko ikasleek, ikaskide batekiko elkarrizketan eta babesean, hausnarketa-esparru optimizatu bat aurkituko dute euren arazoei zuzenean aurre egiteko".

Ikasle laguntzaileek beteko dituzten zeregin nagusiak hauek dira:

- * Laguntzea.
- * Entzutea.
- * Hausnartzen laguntzea.
- * Arazoak aztertzen laguntzea.
- * Erabakiak hartzen laguntzea.
- * Gatazketan bitartekariarena egitea.

- * Jardueretan lider izatea.
- * Eskolako lanetan laguntzea.
- * Iritsi berriei harrera egitea.

Alabaina, helduak (irakasleak) dira antolatzen, koordinatzen eta gainbegiratzen dutenak eta, azken batean, programaren arduradunak.

Ikasle laguntzaileak ikaskideen arazo anitzei lagundu diezaieke, esate baterako, ahulezia egoerak, nahasmen edo tristezia egoerak, zailtasun akademikoak, harreman arazoak irakasle batekin edo ikaskideekin.

Ikasle laguntzaileak ez du beteko poliziaren papera, ez du begiratuko arauak betetzen diren, eta ez ditu ikasleak zigortuko, ez da irakasleei kontatzen dien kontakatilua, eta ez da laguna ere, hau da, ez ditu bere egingo arazoak eta ez da tartean sartuko. Gainera, bere zereginean ez du aholkurik emango, epairik egingo eta erabakirik hartuko beste pertsonaren lekuan.



Nola funtzionatzen du

Berdinen arteko laguntza-estrategia programa egituratua da, eta inplementatu egin behar da aurrez ongi planifikatu eta antolatutako fase batzuei jarraituz.

Programa lehen hezkuntzako bosgarren mailatik aurrera erabil daiteke, nahiz eta bere erabilera hedatua go dagoen bigarren hezkuntzan.

Ikastetxeetako elkarbizitza hobetzeko estrategia hau abian jarri aurretik, kontuan izan behar dira honako alderdi hauek:

- * 1. Klaustroaren aurretiko sentsibilizazioa eta informazioa.
- * 2. Programa koordinatuko duen irakasle-talde bat sortzea eta hauentzako prestakuntza berezi bat antolatzea.
- * 3. Ikasle laguntzaileak aukeratzea. Hautatutako ikasleek borondatez hartuko dute parte programan eta hainbat ezaugarri izan behar ditu profilak: besteei konfiantza ematea, bere buruarengan konfiantza izatea, lider positiboaren nolabaiteko izaera, entzuten jakitea, kritikak onartzea eta beste batzuei gatazkak ebazten laguntzeko prest egotea.
- * 4. Prestakuntza berezia antolatzea ikasle laguntzaileentzat. Trebatze honek gutxienez 16 orduko iraupena izan behar du eta bi hilabeteko epean egin. Bere edukia trebetasunak hartzean zentratzen da, trebetasunak aktiboki entzuteko, arazoak aztertzeko, emozio indartsuak kudeatzeko, modu asertiboan komunikatzeko, gatazketan bitartekaritza lana egiteko eta taldeko jarduerak bideratzeko.
- * 5. Programaren hedapena ikastetxe mailan.
- * 6. Irakasle koordinatzaile-taldearen eta ikasle laguntzaile-taldearen zereginak eta ardurak banatzea. Taldeak laguntza eskain diezaioke beharra duen edozein ikasleri edota jaso dezake hitzordu-eskaera.
- * 7. Laguntza-lanen gainbegiraketa taldearen aldizkako bileren bidez.
- * 8. Programaren ebaluazioa.

10

Kalitatezko zirkulua

Zer da eta zertarako balio du **Nola funtzionatzen du**

Kalitatezko zirkuluak talde berezi bat sortzea eskatzen du ikastetxean sortzen diren elkarbizitza gatazka edo arazo zehatzei aurre egiteko. Taldea, normalean, bost-hamabi lagunekoa, ikaslez, irakaslez osatua edota mistoa izan daiteke.

Kalitatezko zirkulua arazoak ebazteko estrategia parte hartzailea da. Taldea erregulartasunez bilduko da, gutxienez astean behin ordu betez. Taldea ikasleek osatzen dutenean, beharrezkoa da esperientzia duen irakasle batek parte hartzea bileretan, prozesua errazteko eta gainbegiratzeko. Zirkulu kideek jarraibide zehatz eta argiak jaso behar dituzte irakaslearengandik, bai zirkulua eratu aurretik eta bai zirkuluaren garapenean zehar.

Komenigarria da zirkuluko partaideak talde-gela berekoak izatea, taldean lan egitea gai edo arazo berari buruz eta bere lanak nolabaiteko jarraipena izatea denboran. Honek guztiak sendotu egiten du zirkuluaren identitatea eta kide izate- eta atxikimendu- zentzua ematen die partaideei.

Idealki, erabakiak adostasunez hartuko dira zirkuluan. Hori ezin denean, bozketa gehiengoz erabakitzea izango da bigarren aukera.

Kalitatezko zirkuluaren betebeharra luza daiteke hiruhileko batean zehar eta fase hauetan banatzen da:

- * 1. Arazo bat identifikatu.
- * 2. Arazoari buruzko informazioa bildu.
- * 3. Arazoa objektiboki aztertu, bere kausak, ondorioak, etab.
- * 4. Balizko irtenbideak planteatu eta arakatu.
- * 5. Irtenbideak aukeratu.
- * 6. Irtenbideak proposatu irakasle-taldeari edota ikastetxeko zuzendaritzari.
- * 7. Emaitzak ebaluatu.

Behin taldeak irtenbide zehatzen proposamena aurkeztutakoan, jaso duen zuzendaritza- edo irakasle-taldeak abian jartzea komeni den aztertze eta baloratzeko konpromisoa hartuko du.



Kalitateko zirkuluaren programek onura asko dituzte, bereziki, duten eraginarengatik komunikazio-klimen sorkuntzan, arazoei buruzko eztabaidan, irtenbideen bilaketan, prozesuak modu objektiboan hartzen eta erabakiak hartzen.

Kalitatezko zirkulu hauetan partaideek zera ikasten dute: elkarlanean lan egiten, modu eraikitzailean kritikatzan, besteei entzuten, ideiak adierazten, gertaerak ikertzen, konbentzitzeko eta limurtzeko trebetasuna lantzen, baliabide berriak eta sortzaileak bilatzen eta aurkitzen, etab. Honek guztiak gizarte gaitasunen garapenean eragiten du, elkarrekin lan egitearen, ardurak hartzearen eta arazoan aurrean autonomiaz jokatzearen emaitza baitira, eta autokontzeptuaren garapenean ere eragiten du, autoestimua eta besteeikiko estimua sustatzen baitu.

Kalitatezko zirkuluaren oinarritzko arauak eta konbentzioak hauek dira (Ortega, 1997):

- * Ez jarri dagoeneko lortutako helburuak eta benetako lana eskatzen ez dutenak.
- * Behin eta berriz eta guztien laguntzarekin, irtenbiderik onena bilatu.

- * Aldaketa gertatzeko behar den teknika edo estrategia aurkitu.
- * Erabakiak adostasunez hartu, eta ez aurrera egin erabaki arte.
- * Ideia guztiak entzungo dira.
- * Inoiz inork ez du mespretxatuko edo barregarri utziko beste baten proposamena.
- * Proposamenekiko kritika eraikitzailea da bide zuzena.
- * Zirkuluak lehendabizi ideiak sortuko ditu eta gero ebaluatu.
- * Zirkuluak irtenbiderik onena egokitzen onartzen jakin behar du.
- * Zirkuluak beharrezko baliabideak emango dizkio bere buruari pauso jakinak emateko.
- * Zirkuluak gutxienezko arau eta konbentzio multzo bat negoziatuko du horiekin zuzentzeko.

11

Elkarrizketa hezigarria

Zer da eta zertarako balio du

Elkarrizketa hezigarria ezinbesteko lan-tresna da irakasleentzat. Irakasleak ikasturtean zehar askotan elkartu behar izaten du ikasle batekin edo gurasoekin erabakiak elkarrekin hartzeko edota arazoak, gatazkak lantzeko. Bilera edo topaketa egituratua da, elkarlan izaerakoa, bi pertsonaren artean. Elkarrizketatutako pertsonaren inplikazioa eta parte hartzea funtsezkoa da emaitza ona lortzeko. Elkarrizketa ezin da bakarrizketa edo galdeketa bihurtu irakaslearen aldetik, baizik eta pertsona elkarrizketatuaren protagonismoan zentratu behar da, nahiz ikaslea, aita edo ama izan; honen konpromisoa eta ardura bilatu behar da eta hartutako erabakiak gero baliozkoak izatea.

Elkarlan izaerako elkarrizketa hezigarrien ohiko praktika, erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko ez ezik, beste hauetarako ere tresna eraginkorra da:

- * Elkarren ezagutza sustatzeko.
- * Pertsonarteko komunikazioa hobetzeko.
- * Protagonisten arteko konfiantza eta lotura areagotzeko.



Zer izan behar da kontuan

Zenbait jarrera eta estrategiak lagundu egiten diote elkarrizketa hezigarriaren garapen onari, beste batzuek zaildu egiten duten bitartean.

Egin	Saihestu
Enpatia, ulermena eta elkarlana bultzatu.	Zirkunstantziak ezereztu edo garrantzia kendu.
Hurbiltasuna erakutsi eta doinu positiboa jarri.	Ikasleari, familiari edo sistemari leporatu errua.
Protagonista guztiak inplikatu irtenbideen bilaketan.	Beste ikasle batzuk edo norberaren burua eredutzat hartuta konparatu.
Elkarrizketatutako pertsonaren alderdi positiboak azpimarratu (indargarri positiboa).	Galdera gehiegi eginez galdeketa egin.
Komunikazio eraginkorreko teknikak erabili (entzute aktiboa, lehen pertsonako mezuak, hizkuntza deskribatzailea,...).	Ito (behar adina denbora behar da itomenik gabe egiteko)
Hitzik gabeko hizkuntza positiboa erabili (irribarrea, doinua, keinuak, begirada,...).	Kritikatu edo epaitu.

Elkarrizketa hezigarriaren metodologia

Elkarlan izaera duen elkarrizketa hezigarria fase egituratu batzuei jarraituz garatzen da. Fase hauek adieraziko digute zer pauso eman, mapa bat izango balitz bezala, eta helburuak lortzen lagunduko dute. Elkarrizketatzailea da prozesuaren gidaria, eta elkarrizketatua subjektu aktiboa, protagonista.

1. fasea. Prestaketa. Lehen fase honetan, elkarrizketatzaileak landu beharreko gairen inguruko informazioa bilduko du eta hortik abiatuta, aurretiko hipotesi bat egingo du. Gainera, momentu honetan planifikatuko da eta jarriko da hitzordua.

2. fasea. Irekiera. Elkarrizketa hastean, bildutako pertsonen aurkezpena egingo da eta doinu positiboa jartzen ahaleginduko da. Egokia ikusten bada, elkarrizketaren konfidentzialtasuna azpimarratuko da. Elkarrizketatzaileak helburuak definituko ditu eta bere laguntzeko eta irtenbideak topatzeko asmoa azpimarratuko du.

3. fasea. Arazoaren edo egoeraren azterketa. Hirugarren fasean, elkarrizketatzaileak lortutako informazioa aurkeztuko du era deskribatzailean,

datu objektiboak, eta informazio horri buruzko bere emozioak. Jarraian, elkarrizketatuari egoera bere ikuspegitik azaltzen utziko dio konfiantza giroan, eta hausnartzen eta adierazten jarrai dezan lagunduko dio, jarrera enpatikoaren bidez. Halaber, garrantzitsua da elkarrizketari gaian zentratuta eustea.

4. fasea. Irtenbideen bilaketa eta hautaketa. Fase honetan funtsezkoa da elkarrizketatua irtenbideak proposatzen eta aukeratzen inplikatzeari. Arazo edo gatazkaren irtenbiderako akordio negoziatuak diren erabakiak hartuko dira.

5. fasea. Itxiera. Elkarrizketa ixtean, hitz egindakoaren laburpen bat egingo da eta argi azalduko dira ateratako ondorioak eta lortutako akordioak. Gainera, beste elkarrizketa bat proposatu eta adostuko da akordioen jarraipena egiteko. Azkenik, komenigarria da indargarri positiboa erabiltzea elkarrizketatuarekin eta gure asebetetasuna erakustea elkarrizketarengatik.

6. fasea: Jarraipena. Jarraipen-faseak beste elkarrizketa bat egitea eskatzen du adostutako akordioak betetzen ari diren gainbegiratzeko.

12

Kontratua

Zer da eta zertarako balio du

Kontratua tresna erabilgarria da elkarbizitzaren kudeaketarako, ikastetxeetan oso erabilia izatera zehatzeko arazo eta gatazkak lantzeko.

Kontratua, jokabide-, elkarbizitza-, hezkuntza-kontratua ere deitzen zaio, oinarrian bi alderen artean negoziatutako akordioa da, elkarrizketa-prozesu baten emaitza eta bere edukia ezagutza, metodologia edo jokabide izaerakoa izan daiteke.

Kontratua ikasle baten eta bere tutorearen edo ikasketa-buruaren artean egin ohi da, edota ikasle-talde edo talde osoaren eta tutorearen artean. Batzuetan, ikaslearen gurasoak ere izan daitezke prozesuaren partaide. Tresna hau bereziki egokia da derrigorrezko bigarren hezkuntzarako, portaera-zailtasun bereziak edo akademikoak dituzten ikasleekin erabiltzeko. Aitzitik, ez da erabilgarria talde osoarekin eguneroko gorabeherak arautzeko.

Kontratua motibagarria da, ikasleari bere iritziak eta nahiak adierazteko parada ematen dio,



aukeren artean hautatzeko eta inizatiba hartzeko. Gainera, autoerregulazio-prozesua errazten du eta autonomia sustatzen du. Irakasleentzat, kontratua aniztasunaren arretarako eta elkarbizitza-arazo zehatzak eta konplexuak kudeatzeko tresna da.

Zer izan behar da kontuan

Kontratu batek ongi funtziona dezan, beharrezkoa da bere emaitzan eragin erabakigarria duten hainbat alderdi edo ezaugarri kontuan izatea:

- * Kontratua negoziatu egin behar da; erabakitzeke askatasunean, akordioen adostasunean eta hauek betetzeko konpromisoan oinarrituko da. Bestela, erabakia irakaslearena edo zuzendaritza-taldearena bada soilik, alde bakarreko ekintza-plan inposatua izango da, eta, honela, ikaslearen motibazioa, inplikazioa eta konpromisoa murriztu egingo da.
- * Helburu handietako bat da harreman-lotura ezartzea ikaslearekin, horregatik, azken emaitza negoziatura eramango duen elkarrizketa-prozesua erabakigarria da.
- * Kontratua idatziz jaso behar da eta parte hartzaileek sinatuta. Pertsona bakoitzak kopia bat izango du.
- * Egoera edo arazo bera hainbat kontratu jarraitutan islatuko da eta bere edukia pixkanakakoa da, errazenetik zailenera. Lehen kontratuak konpromiso txikiak jasoko ditu, eta handitzen joango dira aurreko kontratuak bete ahala.
- * Lehendabiziko kontratuko konpromisoak erraz betetzeko modukoak izan behar dira.
- * Kontratu bakoitzaren denbora-epea laburra izan behar da, aste bat edota gutxiago kasu batzuetan.
- * Kontratuan adostutako jokabideak betetzeagatik edo ez betetzeagatik izango diren ondorioak (positiboak edo negatiboak) agertu behar dira. Ondorio negatiboak arinak izan behar dira hasiera batean, ikasleari gogoia ez kentzeko.
- * Lortzen diren ondorio positiboak indargarri sozialak eta jarduerazkoak izan behar dira.
- * Kontratuak berrikusteko edo jarraipena egiteko epea eta modua jaso behar du; epea amaitutakoan egin daiteke edota era jarraituan. Komenigarria da jarraipena maiztasunez egitea hasiera batean, astero edota baita hiru egunean behin ere.

Kontratuaren edukia

Ikasle batekin egoera arazotsu bat edo konplexu bat lantzeko eta kudeatzeko egindako kontratuak honako eduki hauek izan beharko lituzke gutxienez:

- * Kontratua sinatzen den data eta lekua.
- * Parte hartzaileen datuak: izena, abizena, maila,...
- * Alde bakoitzak hartutako konpromisoak, konpromiso hauek dakartzaten ekintzen xehetasunak zehaztuz.
- * Konpromiso bakoitza betetzeagatik edo ez betetzeagatik izango diren ondorioak.
- * Kontratua berrikusteko/bere jarraipena egiteko data eta modua.
- * Parte hartutako pertsona guztien sinadura.

13

Gela-batzarra



Zer da eta zertarako balio du

Gela-batzarra funtsezko tresna da eskola-elkarbizitzan; izan ere, taldeari erasaten dioten gai edo arazoak parte hartze demokratikoaren ikuspegitik lantzeko aukera eskaintzen du.

Batzarra foro bat da eta, beronetan, irakasle eta ikasleek taldearen bizitzari eragiten dioten gai mota guztiez hitz egiten dute; talde-solasari soilik eskainitako denbora eta espazioa da eta, bertan, pertsona bakoitzak askatasunez adieraz ditzake iritziak, ideiak, desioak, proposamenak, eta erabakiak demokratikoki, adostasunez edo bozketaz hartzen dira.

Batzarrek lagundu dezakete ikasgelako giroa hobetzen, izan ere, erraztu egiten baitute taldearen elkarlana, komunikazioa, konfiantza eta kohesioa. Mekanismo egokia dira ikasleek ikastetxeko eta gelako kontuetan parte hartzeko bide gisa.

Foro hau eremu egokia da taldeari erasaten dioten izaera kolektiboko gai guztiak tratatzeko, esate baterako:

- * Ikasleen intereseko gaien analisia/elkarrizketa (akademikoak, elkarbizitzakoak, jolasekoak,...).
- * Proiektu edo jardueren plangintza.
- * Taldeko gatazken konponbidea.
- * Adostutako erabakiak hartu (helburu edo agenda komunak ezarri, arauak jarri...).
- * Akordioen jarraipena-analisia.

Baina gela-batzarra ez da egokia ikasle bati edo ikasle-talde bati soilik eragiten dioten gaiak tratatzeko.

Gela-batzarra hezkuntzako etapa guztietan erabil daiteke, haur hezkuntzatik hasi eta derrigorrezko bigarren hezkuntzara. Jakina, bere metodologia, helburuak eta irakaslearen rola aldatu egingo dira ikasleen adinaren arabera.

Zer izan behar da kontuan

Gela-batzarrak ongi funtziona dezan, beharrezkoa da aldez aurretik planifikatzea eta antolatzea bere egituraren eta funtzionamenduaren oinarritzko alderdi batzuk.

* **Espazioa eta denbora.** Lehenengo eta behin, batzarra egingo den espazioa eta garaia definitu behar dugu. Ikasgela eta tutoretza-ordua aukera egokiak dira. Tutoretza-ordurik ez dagoenean, beharrezkoa izango da denbora-epe bat ezartzea egin ahal izateko. Batzarra, idealki, astean behin edo hamabost egunean behin egingo da. Topagune hau ikasturtean zehar sistematikoki egiteko planifikatuta, bere balio hezigarria gehienezko ahalmena izatera iritsiko da.

* **Gelaren antolaera.** Gelaren itxura aldatzeak zeregin desberdin baten aurrean gaudela islatuko du. Ikasleak borobilean jarrita komunikazioa eraginkorragoa izango da.

* **Gai-agenda.** Batzarrean landu behar diren gaien agenda edo zerrenda egitea beste alderdi erabakigarri bat da antolatzeko garaian. Batzarrera eramango diren gaiak ikasleek proposatu behar dituzte, eta euren interesekoak eta kolektibokoak izan behar dira. Zeregin honetarako, bi mekanismo erabiltzen dira: a) gelako horman kartel bat jarri ikasleek proposamenak idazteko edo b) postontzi bat jarri landu beharreko gaiak idatzita botatzeko.

* **Batzarraren dinamizazioa edo moderazioa.** Irakaslearen zeregina batzarrean asko aldatuko da ikasleen adinaren arabera. Ikasleek zenbat eta esperientzia, adin eta trebetasun handiagoa izan, irakaslearen esku-hartzea orduan eta urriagoa izango da. Batzarra moderatzeko edo dinamizatzeko ardurak ikasleen esku egon behar du, irizpide orokor gisa. Zeregin hau hartzea ahalmen hezigarri handiko esperientzia da, izan ere, ikasleen inplikazioa, autonomia eta ardura sustatzen baitu, eta baita gizarte- eta lidergo-gaitasunak garatu ere.

Dena den, irakasleak hartuko du parte batzarra prestatzen eta gai-agenda aukeratzen. Batzarrean zehar ez du jokatu beste bat gehiago bailitzan, baizik eta, behar denean, batzarraren moderazioan edo dinamizazioan gainbegiratzeko edo esku-hartzeko ardura izango du. Zentzu honetan, laguntzen esku-hartuko du, esate baterako, gaia zentratzen desbideratzen denean, arauak gogorarazten betetzen ez direnean, egoerak argitzen, ideiak sintetizatzen edo elkarrizketari laguntzen ez aurrera eta ez atzera geratzen denean, ikasle guztien parte hartzea bultzatzen edo denbora neurtzen.

Gidaren egilea
GEUZ
Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Transformación de
Conflictos

Argitaratzailea
Leioako Udala

Testuak
Lucia Gorbeña

Diseinua eta maketazioa
Vudumedia.com

Itzulpena
Lurdes Amundarain

Testuen ©
Egilea

Edizio honen ©
Leioako Udala

